

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### HEZKUNTZA ETA KULTURA SAILA

**Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko uztailaren 10ean hartutako erabakiaren laburpena; bertan deitzen baitira Vitoria-Gasteizko ikastetxeetako Ikasleen Guraso-Elkar- teek (IGE) antolatutako hezkuntza-jardueretarako laguntzetarako deiladi publikoa eta deialdia arautzen duten oinarri espezifikoak, 2020-2021 ikasturtea**

BDNS(Identif.): 515703

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Di- ru-laguntzen Datu-base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdns-trans/index>).

#### **Lehena. Onuradunak**

Vitoria-Gasteizko ikastetxeetako Ikasleen Gurasoen Elkar- teak (IGE) izango dira deialdi honen hartzaileak. Ikastetxeen kudeaketaz arduratzen diren Vitoria-Gasteizko Irakaskuntzako Kooperati- bak ere izan daitezke erakunde onuradunak, horiek IGERik ez badute eta horiek bete ohi dituzten funtzioak Irakaskuntzako Kooperatibek betetzen badituzte. Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Derrigorrezko Hezkuntzako mailak eskaintzen dituzten ikastetxeekin lotuta egon behar dute erakunde onuradun horiek.

IGE baten ordezkaria izan daiteke hura kide duen federazioa, ordezkartzaren ahalordeari dagokion ziurtagiria sinatu badute bi aldeek, betiere.

#### **Bigarrena. Helburua**

Hauxe da dirulaguntzen deialdi honen xedea: ikasle eta familientzako hezkuntza-jarduerak antolatzen laguntzea Gurasoen Elkar- teei eta, hala dagokionean, Irakaskuntzako Kooperatibei, 2020-2021 ikasturteari begira, antolakuntza horrek dakartzan gastuen finantzaketan parte har- tuz. SARS-CoV-2 koronabirusak eragindako osasun-krisiaren kudeaketaren ondorioz ikasleek eta horien familiek izan ditzaketen beharrekin lotuta gara daitezkeen jarduerak ere sartzen dira deialdian. Ikasleen Gurasoen Elkar- teen jarduera eta, hala dagokionean, Irakaskuntzako Kooperatibena sustatuz, horiek hezkuntzan eta hezkuntza-elkar- tearen prestakuntzan eta, bera- ziki, ikasleen prestakuntza integralean eta haien eskola-arrakastan esku-hartze handiagoa izan dezaten bultzatu nahi da.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaile espezifikoak**

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko uztailaren 10eko erabakiaren bitartez onetsiak; ALHAOn argitaratuko dira.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Deialdiari 233.400,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

**Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea oinarri hauen deialdiari dagokion laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean irekiko da, eta 2020ko irailaren 30era arte egongo da irekita (egun hori barne). Eskabideak epez kanpo aurkeztea dirulaguntzak emateko prozeduratik kanporatzeko arrazoi izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 10a

*Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkaria*  
*ESTÍBALIZ CANTO LLORENTE*